


BILBO

Drogak legeztatzearen ganean eztabaidatzeko, jardunaldiak

Erredakzinoa |

Drogak legeztatu behar dan eztaidatzen dabilz egunotan Bizitzeko plataformek gertatu dituan jardunaldietan, Bilbon. Drogen legeztatzearen ganeko hausnarketea atzo hasi eben, sendabide moduan drogen bidez garatu daitekezan terapien inguruko berbaldiaz. Eta gaur eta bihar segiduko dabe, *Drogak kontsumitzeko era barriak eta Irailaren 11z geroztik munduan hedatu daben debekatzeko joera* izeneko berbaldi berekin.

Lehena, Ai laket!! alkar-teko bozeroale Martin Barriusok emongo dau. Gaueko astialdian drogen eragin negatiboak saihesteko Testing programea sortu eban alkar-teak. Bigarren berbaldian Virginia Montañesek egingo dau berba. Amsterdamgo TNI erakundeko kidea da, eta NBERako egiten dau behar.



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

UMEAK ETA ASTIALDIA. Bideo baten bidez etorkin umeen bizipenak islatuko ditue Begoñako Auzoetxean egingo diren jardunaldietan.

Aniztasunari bideak zabalduz

KULTUR ANIZTASUNA ASTIALDIAN. Urtxintxa eskolako kideek antolaturiko jardunaldietan umeek euren astialdian zer egiten daben azalduko dabe kultura ezberdineko gurasoek

CB CANAL BIZKAIA Bizkaiko Telebista

ABENDUA 03 ASTEARTEA

- 07:40 DOCUMENTAL: "Vete Enterándote"
- 08:05 TRANSFORMERS
- 08:30 BIZKAIA GOIZEAN
- 10:00 MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"(R)
- 11:00 MAGACÍN: "TAQUICARDIA" (R)
- 11:30 SERIE: (CAP 57)
- "ENTRE DOS FUEGOS"
- 12:00 TELENOVELA: (Cap 55) "LA INTRUSA"
- 13:00 ELLA JARDÍN
- 13:30 LA COCINA DE LOCALIA
- 14:00 BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
- 14:40 SORTEON BIZKAIA
- 15:00 NOTICIAS LOCALIA
- 15:30 MAGACÍN: "CADA TARDE"
- 17:00 MAGACÍN: "TAQUICARDIA"
- 17:30 HECHO POR ELLA
- 18:00 TELENOVELA:(CAP 23) "MARIA BELEN"
- 19:00 MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"
- 20:00 LAS CHICAS DE ORO: "La Gallinita Penny sin trampa ni cartón" (2ª Parte)
- 20:30 BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
- 21:05 NOTICIAS LOCALIA
- 21:30 MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DIA"
- 22:00 BACALAO BACALAO
- 23:35 BIZKAIA GAUR 3ª EDICIÓN
- 23:45 ULTIMAS NOTICIAS LOCALIA
- 00:00 CINE: "ED WOOD"
- 02:00 MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DIA" (R)
- 02:30 MTV. CANAL MUSICAL

Ainhoa Güemes |

Hamasei urte baino gehiago dira jada Bizkaiko Urtxintxa eskola susperketa soziokulturalaren arloan prestakuntza emoten hasi zanetik. Gizartean emoten dan etengabeko aldaketa prozesua aztertu eta horren ganeko gogoeta egiten dabe Urtxintxako kideek; beti be aldaketa horiei aurre egiteko bideak bilatzeko asmoz.

Urtxintxa astialdian oinarritutako prestakuntza eskola be bada, eta formakuntzaz gain astialdi proiektuak kudeatu egiten ditue, batez be, umei eta gazteei zuzendutakoak. Proiektu horietan gero eta etorkin ume gehiagok parte hartzen dabela oharturik, Urtxintxako kideek kultur aniztasuna lantzeari ekin deutse aurton. Hori dala eta, Kultur Aniztasuna Astialdian izenburuko jardunaldiak antolatu ditue.

Kultur ezberdinen arteko alkartasuna eta hurbilketa gauzatzeko da Urtxintxa eskolako ki-

deen helburu nagusia, eurek nabarmendu dabenez, «jardunaldien helburua xumea da, hausnarketea eta eztabaidea bultzatzea nahiko genduke, non protagonista nagusiak errealtate hori aski ezagutzen daben etorkin gurasoak, umeak eta hezitzaileak izango diren».

Jardunaldi horiek hile honen 9an eta 10ean egingo ditue Begoñako Auzoetxean, eta arrastiko 19:00etan izango dira. Izan be, egingo daben lehenengo jardunaldian, abenduaren 9an, hain zuzen, umeek zer egiten daben euren astialdian azalduko dabe kultura ezberdinetako gurasoek. Era berean, bideo baten bidez, umeen bizipenak islatzen saiatuko dira.

PROTAGONISTAK

Errealtatea ezagutzen daben etorkin gurasoak, umeak eta hezitzaileak izango dira jardunaldien protagonistak

Beste alde batetik, astialdi alkar-teek kultura ezberdinetako umeekin egiten daben lana eza-gutzeko aukerea izango da abenduaren 10ean.

Zortzi ordutako mintegia

Azkenik, Urtxintxa eskolakoek zortzi ordutako mintegia prestau dabe abenduaren 11rako, eta aniztasun kulturalean baloreak eta jarrerak lantzeko estrategiak jorratuko dira bertan. Pepi Soto irakasle katalanak eskainiko dau, eta, erabiliko dauen metodologia sano dinamikoa izango dan arren, prestakuntza teorikoan murgilduko da gehienbat; mintegian parte hartu gura daben guztiek izena emon beharko dabe aldezturik.

HELBURUA

Kultura ezberdinen arteko alkartasuna eta hurbilketa gauzatzeko da Urtxintxako kideen helburu nagusia

Hasiera baten, «gaiari zelan heldu ez ekiela», Bartzelonako Udalean kultur aniztasuna lantzen daben arduradunekin jarri ziran kontaktuan. Izan be, kultura aniztasunari jagokonez, Generalitateko gobernua Kaleidoskopio izeneko proiektu pilotoa lantzen hasi zan orain dala lau urte, eta gaur egun horren emoitzak jasotzen dagoz Katalunian. Katalunian egindako ibilbide luzea aprobetxatuta, han batutako informazio eta material guztia jaso izan dabe, Euskal Herrian be, kultura aniztasunaren ganeko antzeko saiakera bat egiteko asmoz.

Munduko Emakumeok alkar-teko kideei proiektua aurkeztu eutsen orain dala hile batzuk, eta oso erantzun ona jaso eben euren aldetik. Izan be, Munduko Emakumeok alkar-teak berehala jarri eban martxan lan batzorde bat, eta Urtxintxakoekin batera proiektua aurrera atarateko ahalegin handia egin dau batzordeak, antolatuzaileen esanetan.